

Donostia, 2020ko martxoak 13

Familia maiteak,

Lan metodo bat zehazteko aukera ezberdinen ganean klaustroan hausnarketa egin ondoren, etapa ezberdinetarako zehaztu ditugun lan jarraibideei buruzko informazioa bidaltzen dizuegu:

HAUR HEZKUNTZA

Etapan honetan, umeei beren autonomia pertsonalean aurrera jotzen laguntzeko jarraibideak bidaliko dizkiete irakasleek gurasoei.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 1 eta 2

Tutoreek plataforma bidez egin beharreko lanak bidaliko dituzte astero (martxoaren 13an eta 18an).

Bidalitako lanak testu liburuan egin beharko dira. Gainera, liburu digitalean ere egiteko aukera baduzue, honek zuzentzeko aukera ematen duenean.

LH 3 eta 4

Tutoreek plataforma bidez egin beharreko lanak bidaliko dituzte astero (martxoaren 13an eta 18an).

Drive-en elkarbanaturik dagoen karpeta batean sartzeko link bat bidaliko dute plataforma bidez. Karpeta horretan bertan lan bakoitzaren emaitzak bidaliko dira gurasoek beren seme-alabekin zuzentzeko.

LH 5 eta 6

Bi egunetik behin tutoreek gurasoei plataforma bidez eta ikasleei Classroom bidez, denboraldi horretarako lan plangintza bidaliko dute, ikasgai bakoitzean egin beharreko lanak eta epeak zehaztuz; horrela zuek ere jakin dezazuen zeintzuk diren zuen seme-alabek egin beharreko lanak.

DBH-BATXILERGOA

Oso garrantzitsua da bai gurasoek bai ikasleek kontuan izatea arduratsu izatearen garrantzia eta lanak eta ordutegiak betetzea.

Gogoratu egindako lanak 3.ebaluazioko notetan kontuan hartuko direla.

Irakasle bakoitzak bere ikasleekin lan egingo du, eta goizean zehar bere ikasgaietan nola egingo duen lan adieraziko zizueten dagoeneko: Classroom, audio, bideo-konferentzia bidez,...

1. eta 2.DBHko ikasleek astero jasoko dute ikasgai bakoitzean egin beharreko lana. Ikasleek atentzia, informazioa eskatu eta ikasgai bakoitzeko irakasleari kontsulta diezaiokete dagokion klase orduetan, zalantzak argitzeko.

Irakasleek epe bat jarriko dute lanak entregatzeko, edo egindako lanari jarraipena egiteko test moduko probak bidaliko dituzte.

Ikasleen lanak jaso ondoren, irakasleek zuzenduta itzuliko dituzte.

Zintzilik geratu diren errekupeazio azterketak aurrerago egingo dira, aldeztatik adieraziko zaie ikasleei.

Pasahitzekin arazoak dituzten ikasleek edozein helbide elektronikotik mezu bat bidali beharko dute helbide honetara: juncal.olasagasti@donostia.teresiareskola.com

Irakasle guztiak konektatuta egongo dira Classroom edo korreo bidez, baita plataforma bidez ere, zuen zalantzak argitzeko.

Espero dugu, guztiok gure esku dagoena eginez, irakasle, ikasle eta gurasoak egoera honetatik ongi ateratzea.

Gogorarazi nahi dizuegu familian kutsatua dagoen norbait baduzue, mesedez ESKOLAKO ZUZENDARITZARA abisatu behar duzuela.